


*Esperientziak*



**ZUTABE: «ESPERIENTZIAK» saila**

Hizkuntz irakaskuntzako esperientziak eta ideiak elkartrukatzeko leku izan nahi du sail honek; hori bait litzateke, izan ere, euskararen irakaskuntzan gure teknikak hobetzeko inspirazio-bide ezin hobea. Arduradunok, beraz, dei zabala egiten dizuegu lan honetan ari zareten guztioi, zeuen ihardunean aurkitu dituzuen ideia eta burutazio emankor guztiak, hitz gutxitan bederen, azal ditzazuen. Ez dugu ideia horien atzean egon daitekeen teoria lantzerik eskatzen, ez bait da akademikoa sail honen orientazioa.

## Abestia «B» ereduko 6. OHOn

Geure euskararen programazioan *mintzaira* lantzeko ariketen arloan kokatzen dugu *abestia*, lamina mutuekin, pasadizoekin, poematxoekin, irakurgaiarekin, marrazki izkutuarekin eta nahas-mahasekin batera. Beraz, edonor kontura daiteke bai idatzizko, bai ahozko beste mikrohizkuntzarako edo makrohizkuntzarako ariketa analitikoan eta hedagarrien ondoren nolabait *gozamenaren* eta *plazer estetikoaren* munduan sartzen garelako ikastunitatearen azken arlo honetan.

Horregatik, hasiera-hasieratik esan beharrezkoa da, bizitzarako baliagarri ez den hizkuntzak ezertarako baliorik ez badu, bizitza dela euskara irakastearen helburua, eta ez euskara bera. Bestalde, denok dakigu ez dela bizitza neutrorik esistitzen, azken batez bizitza bizimoduarekin nahasten delako eta hizkuntza —estilo eta kultura baten bereizgarri gisa— bizimoduaren determinanterik garrantzitsuen delako.

Horrekin batera, geure irakaskuntz esperientziaren ondorio bezala, aspaldian konturatu gara Descartesen harako «pentsatzen dut, beraz banaiz» hura neurri labur eta oso urrian bakarrik jar daitekeela programazio edo antolamendu baten oinarri gisa. Urtetako esperientziak adierazten digunez, printzipio horrekin batera —eta ez bata, ez bestea arbutatu gabe— honako hau ezarri behar dela azpiegituraketan: «gozatzen dut, beraz banaiz».

Hori dela-eta, neurri handi batetan behintzat, ezinbestekoa da horretara bultzatzen gaituen sentimenduen hezkuntza etikoaren garapena eta ahalbide estetikoaren sakontzea lortzea. Arlo horren barruan ulertzen dugu abestiaren rola euskararen irakaskuntzan.

Baina, bestalde, agian beste edozein forma baino adierazgarriagoa gertatzen zaigu sozializatzeko prozesuaren orduan eta, horregatik, abestiaren bi funtzio horiek kontutan hartuz, hots, sentimenduen hezkuntza estetikoarena eta aipatu berri dugun sozializatzearna, bi lipar ezberdinetan erabiltzen dugu ikasgelan: bat, gelako edonoren urtebetetzea dela eta, zorionaren partaidetza adierazteko lez eta, bigarrenez, ikastunitatearen programazio barruan.

Beraz, begi bistan dago zeharo ezberdinak direla bi erabilkerak, lehenengoa nahiko anarkikoa izan daitekeelarik, bigarrenak behintzat programaketarekin bat etorri behar duelako. Esperientzia partaidatze honetan bigarren abesti mota analisatu nahi genuke gehienbat. Aipatzen genuen bezala, programazioaren barruan kokatzen dugun abestiak zeharo izan behar du berezia: alde batetik, gozagarria izan behar duelako eta, bestetik, ikastunitateko edukinekin batera joan behar duelako.

Gure «B» ereduko 6. OHOeko bigarren ikastunitateko edukin nagusiak honako hauek dira:

- deklinabidean *nork* ergatiboa;
- aditzaren aldetik, *nor nork* sistemaren lehenaldia, forma guztietan;
- egituren aldetik, erlatibozko perpausak, erreferentendunak eta erreferente gabeak.

Puntu guzti horiek zehatz-mehatz betetzen dituen abestirik ez da egongo gure arteko kantagintzaren merkatuan segur aski; guk dakigunez, norbaitek abestiren bat borobiltzen duenean, bietako bat egin behar duelako: melodiaren sustarri daitezkeen hitzak asmatu edo jadanik idatzita dagoen poemaren bat erabili. Gure glotodidaktika mundua —abestien irakaskuntzan behintzat—, zoritxarrez, haurren lehenengo urtetako beharrei erantzunkizuna emateko bakarrik dago prest. Gogora Imanol Urbietaren ahaleginak, esate baterako. Baina goiko ziklotik gorantzako ikaslearentzat ez dago horrelakorik. Orduan, dagoenetik aukeratu beharra dago. Horregatik, guk, adibidez, Xabier Leteren *Xal-badorren Heriotzean* poema kantatua hartu genuen.

Beraz, abestiaren hautaketa egin ondoren, honako pausoak ematen ditugu kantaren lantze prozesuan:

a) Entzun, behin eta berriro, ikaslea doinuarekin familiarizatu arte.

b) Ikaslea doinuaren magiaren barnean murgildurik dagoenean, hitzen idazlearen berri ematen diogu eta berdin doinuarenari buruz, ezberdinak badira.

Lana sinplifikatu egiten da Xabier Leteren kasuan. Gainera honako abesti honek aukera eman digu, alde batetik, euskal kantagintzari buruz zerbait adierazteko, bestela zeharo ezezagunak bait zaizkie gure kantautoreen pertsonalitateak horrenbesteko kanpotar sarrailketaren ondorioz; eta, bestetik, aukera eman digu ere Xalbadorren figurari buruz informazio bero eta apasionatua emateko. Puntu horretan oso inportantea deritzogu geure nolabaiteko atxikumendua adierazteari, objetibitatea ahalik eta gutxien galduz ere, ezinezkoa bait da bestela abestiaren azken helburua iristeko behar den pertsona osoaren konpromezua lortzea.

Adin honetan —haurrek 11 edo 12 urte dituzte— identifikatze prozesu latzean murgildurik daudenez, gure euskal hezitzaile-lana da geure arteko identifikazio-ereduak eskaintzea. Galtzaile izan ondoren sufrimendutik mendi-mazelera altxatu den pertsonalitateak beti du haur hautentzat lilura. Zeresanik ez dago gure ikasleek ikasi egiten dutela neurri batetan nor zen Xalbador eta zein-nolako tokia izan duen bertsolaritzan.

c) Hori egin ondoren, *testuaren lanketara* jotzen dugu. Kasu honetan, honela landu dugu Leteren poema.

1) Deklinabidearen aldetik *nork* ergatiboa / *nor* nominatiboa, bi kasu hauek bait dira poemari zehar gehien agertzen direnak, eta gainera gure programaketarekin bat datozelako. Lantzerako, pauso hauek eman ditugu:

- Bere berezitasunak aurretik ikasgaiari zehar eta batez ere ariketa analitikoetan landurik daudenez, *aurki itzazu nork ergatibo guztiak*.
- *Aurki itzazu nor nominatiboak*.

Bai ergatiboetan, bai nominatiboetan erlatibozkoak daudenez, biek eman digute erlatibozkoen *sujeto* funtzioa adierazteko aukera.

- Bete itzazu hutsuneak. Berriz eman diegu abestiaren testua, baina zenbait *sujeto* agertzen diren tokietan hutsuneak eskainiz. Poemaren azpian, desordenaturik, eman dizkiegu hutsunetan kokatu behar dituzten *sujeto* horiek.

2) Aditzaren aldetik oso erreza gertatu zaigu *testuaren lanketa*, *nor-nork* sistemako *nor* hirugarren pertsona bakarri agertzen delarik.

3) Edukinean aldetik, berriz, aukera ezin hobea eman digu Xabier Leteren poemak puntu honen birpasa egiteko, *testu* osoa adibidez josita dagoelarik.

«poesiaren hegoek  
sentimentuzko bertsoek antzaldatzen zuten-a»

«mendi hegaletan gora  
oroitzapen den gerora  
ihesetan joan hintzan-a»

«inoiz esan ezin diren  
estalitako egien oihurik bortitzena»

Baina orain arte aipatu dugun guzti hori egia eta garrantzizkoa izanik, uste dugu abesti batek batez ere olerkigintzaren arloan murgiltzeko aukera eskaintzen digula, eta ezinbestekoa litzaigukeela mundu horretako zenbait bereiztasun agertaraztea.

Orduan, aurrena *teknika* aldetik gauzarik arruntenak eta deigarrienak aurkeztu dizkiegu. Horretarako, lehenengo ariketa gisa, honako hau proposatu diegu. Fija zaitez nola eman diguten diskoaren barneko orrian Xabier Leteren poema.

«Adiskide bat ba zen orotan bihotz-bera,  
poesiaren hegoek,  
sentimentuzko bertsoek antzaldatzen zutena.»

Begira orain nik nola banatzen ditudan bertsoak.

«Adiskide bat bazen  
orotan bihotz-bera,  
poesiaren hegoek,  
sentimentuzko bertsoek  
antzaldatzen zutena.»

Orain egin ezazu gauza bera bigarren, laugarren eta bosgarren bertsoekin.

Bertso-banaketa hori landu ondoren, *neurketari* eman diogu geure arreta eta honela markatu diet neurria, silabaka:

«Adiskide bat bazen (7)  
 orotan bihotz-bera (7)  
 poesiaren hegoek (8)  
 sentimentuzko bertsoek (8)  
 antzaldatzen zutena.» (7)

Begira orain bigarren, laugarren eta bosgarren estrofa eta egizu gauza bera.

Hirugarrengoz *errimari* buruzko noziorik arruntenak eman dizkiegu.

«Adiskide bat bazen (libre)  
 orotan bihotz-bera,  
 poesiaren hegoek  
 sentimentuzko bertsoek  
 antzaldatzen zutena.»

Egizu gauza bera beste estrofa guztiekin.

Laugarrengoz, *oin-erritmikoari* buruz aipatu diegu zer bait, aintzasunaren barruan agertzen den batasuna adieraziz.

Azkenik, eta bai neurri bat erritmo aldetik, koruaren estrofa estudiatu dugu.

Guzti hori *teknika* arloan eskaini diegu; baina, haurrei *hizkera poetikoaren* hasimasiak emateari garrantzizkoa deritzogunez, batez ere oso maila arruntean, metaforen hiponimi zentzu sakona aztertzen saiatu gara, beren edertasuna eta esanahia urratuz.

Esate baterako

«poesiaren hegoek  
 sentimentuzko bertsoek» antzaldatu.  
 «Hesia urraturik  
 lotura guztietatik  
 gorputzaren mugetatik» aske...

Bestalde, kontraposizioen indarra azpimarratzen saiatu gara. Esate baterako:

«plazetako kantari ..... bakarñadez josia»  
 ↓ ↓  
 sozializazioaren sinbologia ← → gizon bakartia

Eta horrekin batera, aditzen arteko erlazioa: *josi - irun - irauin*.

«hitzen lihoa irun ..... bere barnean irauin»

Haurra edertasunaren mundura —hitzaren edertasunaren mundura— ekarrerazten ari gara. Ez genuke gehiegi luzatu nahi. Eta bukatzera goaz. Neure esperientzia kaxkarra adierazi nahi izan dut, besteren batzuk beren esperientzia joriagoaz aberastuko gaituzte-lakoan.

Baina ez nuke azken pausoa aipatu gabe amaitu nahi. Hamaika eta hamabi urteko haurrak —doinua emanez— eta poetaren errekurtsuen berri murrizta jakinez, beren bertso pertsonala egiteko oso kapaz dira. Hona hemen nire gelako hamaika urteko Isabel Etxeberria euskaldun berriaren bertsoa:

Lagun haundi bat neukan  
 eta hoberik ez dago;  
 beti egiak esaten,  
 beti bizitzak alaitzen,  
 eta orain non dago?

zerura eraman zuen  
 eta bertan gelditu zen  
 nire lagun maitea.

*Laguna, etor zaitez  
 zure hatsa behar dut;  
 nire bihotza alaituz  
 nire irrimoa handituz  
 nire ondoan nahi zaitut.*

Jainkoak deitu zuen  
 nire lagun handia,